

# Korrika Kulturala Lizarraldean

## Otsaila

27an, ostirala, 20:00etan, **Lizarrako Julian Romano Musika Eskolan.**

Ander Izagirrerren proiektioa:  
«Euskal Herriko 20 sekretu txiki».

27an, ostirala, 22:00etan, **Lizarrako Gaztetxean.**

Antzerkia: «Karakolaren gaua. Eskale baten istorioa».

## Martxoa

6an, ostirala, arratsalde osoan zehar, **Lizarrako Foru plazan.**  
Kultur-bira: umeentzako magoa, musika, proiektioak, korrika aurkezpena...

7an, larunbata, 18:00etan, **Lezaungo elkartean.**

Korrika aurkezpena eta «Bidaia intimoak» dokumentala.

11n, asteazkena, 20:00etan, **Lizarrako kultur etxean.**

Hitzaldia: «Energia berriztagarrien aplikazioak etxebizitza eta isolatutako tokiak».

12an, osteguna, 20:00etan

Hitzaldia: «Ura denontzat, ibaiak bizirik».  
Hizlaria: Julia Ibarra (ekologistak martxan).

13an, ostirala, 20:00etan, **Oteitzako udaletxean.**

Korrika aurkezpena eta «Bidaia intimoak» dokumentala.

14an, larunbata, **Allotzen.**

Afari herrikoia, kontzertuak eta berbena  
(Altxamendu + Unzain anaiak).

15an, igandea, 19:30ean, **Lizarrako Gaztetxean.**

«Bidaia intimoak» dokumentala.

16an, astelehena, 20:00etan, **Lizarrako kultur etxean.**

Hitzaldia: «Periodistas y medios de comunicación en las lenguas minoritarias europeas».

18an, asteazkena, 18:00etan, **Lizarrako La Bota elkartean.**

Txokolipuinak.

18an, asteazkena, 20:00etan, **Lizarrako Gure Hizkuntza Elkartean.**

Helduentzako ipuinak.

Ipuin-kontalariak: Ion Barbarin eta Izaskun Mujika.

19an, osteguna 19:00etan, **Metauteneko gizarte-etxean.**

«Bidaia intimoak» dokumentala.

20an, ostirala, **Eulaten** egun pasatzen.

Goizeko 9etan herriz herri korrika. **Ameskoan** barrena.

- Eguerdian: umeentzako herri-kirolak.
- Bazkari herrikoia.
- 23:00etan kontzertuak (Kaotiko, Stupenda Jones, Los últimos reyes eta Sortuz).

21ean, larunbata, **Lizarrako Gazte eguneko kalejira**

«Bertso poteoa» (Julen Zulaika eta Manex Agirre bertsolariekin).

24an, asteartea, 20:00etan, **Lizarrako Musika Eskolan**

«Bidaia intimoak» dokumentala.

**26an denok TUTERARA!!!**

Autobusez joanen gara.

28an, larunbata, **Lizarran**

Afari herrikoia.

29an, igandea, goizeko 10:00etan, **Lizarrako Remontibal Frontoian**

Eskupilota partiduak.

**31an KORRIKA LIZARRALDEAN**

- 11:00etan Larragan
- 12:15ean Oteitzan
- 13:00ak aldera Lizarran
- 14:15ean Larrionan
- 15:30ean Zudairen eta hortik San Martin, Eulate, Aranaratzxe
- 16:45ean Larraonan.



7.  
zbk.

# kotarro

2009ko martxoa

debaldeko alea

## Garean-Jarduerak

**Lizarran Kantuz**

martxoak 28  
apirilak 25  
maiatzak 30  
Arratsaldeko 20.00tan  
Baxenabarra kaletik.

**Txokolipuinak**

martxoak 18  
apirilak 22  
maiatzak 20  
Arratsaldeko 18.00tan  
La Bota Elkartearen egoitzan

**Jolas-Solas**

martxoak 4  
apirilak 1  
maiatzak 6  
Arratsaldeko 18.00etan  
Gazteriaren Etxean

**Larunblai**

martxoak 7, 14, 21 eta 28  
apirilak 4 eta 25  
maiatzak 9, 16, 23 eta 30  
Arratsaldeko 16.30etatik 18.30etara  
Gazteriaren Etxean

**Garean Irratian**

Larunbatero 12:30tik aurrera,  
Lizarrako Punto Radio-n  
(FM 93.5ean).

**KULTUR ERROTA**

**Literatura emanaldia:**

«Mugarri Estaliak»  
C. Suarez, I. Epelde, J. M. Arzelus,  
A. Larraza eta K. Arnatzek  
Apirilak 30

**Bertsolaritza:**

«Xalbador» antologia  
Xabier Amurizak  
Maiatzak 22



## Ongi etorri Lizarrara, euskaraz bizi nahi duen herrira

2009ko martxoaren 26an Tuteran hasita, 11 egunez eta gelditu gabe,  
Euskal Herria zeharkatuko du hamaseigarrenez Korrikak.

Korrika AEK-k Euskal Herri osoan zehar egiten duen euskararen aldeko lasterketa erraldoia da. Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu.

1980an I. Korrika antolatu zenetik 15 Korrika eta 28 urte igaro dira. 2009ko martxoaren 26an Tuteran hasita, 11 egunez eta gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du hamaseigarrenez Korrikak. 2.000 kilometro baino gehiago euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka korrikalarirekin, gau eta egun gelditu gabe, apirilaren 5ean Gastei-zera heldu arte.

Atzeritik Euskal Herrira etorri, euskara ikasi eta erabili, umeei irakatsi, gure kulturaz gozatu, eta belaunaldiz belaunaldi euskara transmititu duten milaka familia horiek omendu nahi ditu Korrika 16k.

Korrika bera baino lehenago «Kultur-bira» eta «Korrika kulturala» izanen ditugu. Euskarazko arte eszenikoak bultzatzea, euskal

sortzaile berriei bidea egitea eta jendaurrean aurkez daitezkeen kultur ekimenak sortzen laguntzea du xede Korrika kulturalak. Ohiko ekitaldi kulturalaz gain, programazioa osatu eta aberasteko Kultur-birarekin dator aurturaren. Lizarrara martxoaren 6an. Kotarroko azken orrialdean dago egitaraua. Abestia, bideoak eta informazio gehiago korrika.org helbidean.

Azkenik, Korrika 16 Lizarrara martxoaren 31n, asteartean iritsiko da. Zuk ere parte har dezakezu. «Korrika laguntzaile» euskarria erosiz, Korrika batzordean parte hartuz, Korrika kulturalak antolatuko dituen ekitaldietan agertuz, martxoaren 26an Tuterara eta apirilaren 5ean Gasteizera joanez, mate-

rialia edo oroigarriak erosiz, petoa erosiz AEKren euskaltegien, kilometroak erosiz, Euskadiko Kutxan zabaldu den kontu korrontean (3035.0072.0.2.072.0.00571.0) nahi den diru kopurua sartuz. Eta, jakina, korrika eginez ere bai. Ongi etorri Lizarrara, Korrika.

Lizarrara  
martxoaren 31n,  
asteartean,  
iritsiko da

kotarro

7. zenbakia

Navarro Villoslada, 1 - 4.E

31200 Lizarra - Nafarroa

Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

**Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak**



Diseinua eta maketazioa:

Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007

Ale kopurua:800



Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluen edukinaren ardurarik Garean Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.



# Garean Euskaldunon Sarean

*Bazkidetza kanpaina hasi da: bazkidetu zaitez!*

Garean Euskaldunon Elkarteak abian jarri duen kanpainaren leloa da artikulu honen izenburua. Kanpaina honen bidez, bi helburu lortu nahi dugu: bata, euskaldunon arteko sarean Garean Elkarteak lan egiteko jaio dela eta, bestea, sare hau sendotzeko Garean Elkarteak bazkideak behar dituela, hain zuzen ere. Gure herrian eta eskualdean bizi garen euskaldunon arteko harreman sarea sustatu eta sendotu behar delakoan gaude. Ez soilik elkar ezagutzea bultzatzeko, egun dauden euskarazko egitasmoak denon artean indartzeko eta euskararen berreskuratzeko asmoz sortu behar diren egitasmoak sustatu eta garatzeko baizik.

Gure esparru geografikoan ugari dira euskararen berreskuratzeko prozesuan parte hartzen diren eragileak. Ugariak gara baita ere prozesu horretan murgilduta gauden norbanakoak. Eta Garean Euskaldunon Elkarteak euskarazko gune elebarrak sortu nahi ditu, gure hizkuntzaren erabilera areagotzeko eta, horretarako ere, hemengo euskaldunok ezinbestekoak gara. Halaber, erdal munduan ere eragin nahian, euskararen unibertsoak eskaintzen dituen aukerak begi-bistan jartzen saiatzen ari da; horren adibidea izan daiteke azken asteotan umeak euskaraz matrikulatzeko egin berri dugun kanpaina.

Jakina, euskaldunon elkarteek premia bat dute, hots, pertsonak; gure kasuan, hemengo euskaldunak! Horregatik,


kanpaina hau garatzen hasiak gara, Garean Euskaldunon Elkarteak orain arte baino eraginkorragoa izan dadin, zuen ideiak eta zuen partaidetza behar ditugulako. Urtebete daramagu lanean eta hasierako ilusioa areagotu zaigu, jarduera batzuk abian jarri ditugu eta beste batzuk jartzeko asmoa dugu. Zalantzarik gabe asko dugu egiteke, baina hori da kemena ematen diguna aurrera egiteko, hain zuzen ere.

Jakina, orain zuengana jotzen dugu Garean Euskaldunon Elkartearen kideak izan zaitezten. Izan ere, gure eskualdean euskaraz bizi nahi dugunontzako elkargunea aurkituko duzu; zuk bezala, euskararen presentzia handitu nahi duten lagunak topatuko dituzu eta euskarazko ekimen eta jarduerak sustatu eta sortzeko aukera izanen duzu. Gainera, bazkide izanik, Elkartearen parte hartzeko modu desberdinak izanen dituzu: egitasmoari laguntza eta sostengua emanen

diozu; urteroko batzarretan parte hartzeko eskubidea izanen duzu, hurrengo urteko jarduera berriak proposatzen edo abian daudenak hobetzeko proposamenak eginez; lan taldeetan aritzeko ere aukera izanen duzu; eta elkarteak antolatzen dituen ekimenetan beharpen sinbolikoak izanen dituzu.

Baina, bazkidea izanik, Garean Euskaldunon Elkartearen gainontzeko kideek bezala, euskaldunon sarea sendotzen lagunduko duzu, sare horren hariak biderkatuz. Elkarlanak ematen digun indarra. Lagundu zuk ere euskaldunon hariak sendotzen eta garatzen!

Garean Euskaldunon Elkarteak euskarazko gune elebarrak sortu nahi ditu.



Garean-jarduerak



## Gareanen Batzar Nagusia

Urtarrilaren 24an, Garean elkarteak urteko Batzar nagusia egin zuen. Bazkideen erdia baino gehiagok parte hartu genuen. Batzarra Maria de Vicuña Gazteriaren Etxean egin zen, arratsaldeko 7etan. Joan den urteko jardueren eta ekimenen azterketa egin zen eta egindako lana txalotu genuen bildutakook. 2009rako plangintza eta erronka berriak azaldu ziren eta elkarte hartzen ari den dimentsioa ikusteko aukera izan genuen. Ez da lan makala urte t'erdian egindakoa. Batzarra bukatu ondoren, Murugarrengo sagardotegian afora egin genuen. Beti prest trikitilariak, Mentxu Alkorta, Peio Zabala eta Luisfer Etxeberriak ederki berotu zuten giroa!



## Abian da mintzakide!

Azkenean, martxan dago Mintzakide egitasmoa. Euskaldun osoak, hau da, euskaraz ongi moldatzen direnak, eta hobetu nahi dutenak talde txikietan arituko dira euskaraz mintzatzen, elkar ezagutzen, gustuko dituzten gauzak egiten. Esparru librean arituko dira, hau da, talde bakoitzak adostutako tokian eta egunean. As-tean behin eta gustuko dutenaz aritzeko. Mentxu Alkorta izanen dugu dinamizatzaile. Urtarrilean zehar izena emateko aukera egon ondoren, dagoeneko 24 lagunek ilusio handiz erantzun dute. Iruñerrian duela bostz urte hasi zen ekimen hau lizarberriera eta Estellerriera ailegatu da. Bazen garaia!



Bodegas Lezaun  
Asador-Jatetxea

Enoturismo  
Bisita gidatuak  
Ardo-dastaketak

Lakar (Deierri) NAFARROA  
info@lezaun.com - www.lezaun.com  
Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231

LIBURUDENDA  
**INO**  
PAPERDENDA

Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2  
Tel. eta fax: 948 550 383 · LIZARRA

## Harira



## Hizkera kolokialaren eta gazte hizkeren beharra

*Euskararen biziraupenaren gakoetako bat gazteek lagunarteko hizkeraren gainean duten ezagupena da. Gaztea bere afektibotasuna euskaraz modu naturalean emateko gauza denean ziurtatuko da biziraupena.*

Xabier Yaben

Gauza jakina da hiztun ona ez dela soilik egoera formaletan ongi moldatzen dena, baizik eta egoera komunikatibo guzietara ongi egokitzen dakiena. Hau da, hiztun onak, komunikazio egoeraren arabera, hizkera edo erregistro zehatz bat hautatuko du, bere diskurtsoa (ahozkoa zein idatzizkoa) egokia izan dadin eta bere burua ere eroso senti dezan. Finean, hizkuntza kontuetan —kontu gehienetan bezalaxe— eroso sentitzea arras inportantea baita. Bertzalde, euskararen etorkizunari begira egiten diren ikerketa guzietan gaur egungo gazteak izan ohi dira erreferentzia nagusi, haien esku baitago hein handi batean euskararen biziraupena. Eta biziraupen horren gakoetako bat, hain segur, honakoa dela uste dut: gazteek delako lagunarteko hizkera horren gainean duten ezagupena.

Abia gaitezen kontraerrana iduri duen egoera batetik. Bistan da hondar urteetan euskararen berreskurapen eta normalizazioan eman diren urratsak handiak izan direla: euskaraz inoiz izan diren eskolatze-maila altuenak ditugu. Euskarazko kultur produkzioa ere inoiz baino dibertsifikatuagoa, modernoagoa eta indartsuagoa da, eta euskarririk modernoan kaleratzen da, eta zati handi bat, gainera, gazteei zuzendurik dago.

Bertzalde, ezagutzari dagokionez, geroz eta gehiago dira euskara ezagutzen duten gazteak. Adierazle positibo horiek alde batera utzirik, ordea, gaztediaren inguruan badira erne egotera behar-tzen gaituzten bertze hainbat adierazle. Eta horietan kezkarrienetarikoa hauxe: gazte askok egoera informaletan erdarara jotzen dute, eta euskara eskola eremuarekin lotzen dute batez ere, hau da, egoera formalagoekin.

... gazte askok egoera informaletan erdarara jotzen dute

Gazte hizkeraren inguruan eginiko ikerketa aunitzetan honako ondorioak ageri ohi dira: erdararen presentzia handia da eta ohiko formulatan, esaldi hibridoetan zein lexikoan argi eta garbi azaltzen da. Hor-taz, gazte hauen diskurtsoari «gazte» kutsua ematen dioten elementuak erdal jatorrikoak dira nagusiki. Bertzalde, eremu soziolinguistikoa ez omen du guk uste dugun adinako garrantzia, hau da, eremu euskaldun bateko gazte batek erakusten duen erdararekiko mendekotasuna ttikiagoa bada ere, ez dago alde handiegirik eremu erdaldun bateko euskaldun batek erakusten duenarekin. Eta horrek aspaldiko mito bat hausten du: gune euskaldunen ustezko iraz-gaiztasuna edo inpermeabilitatea. Zernahi gisa ere, euskararen erabilpen futzionala egiten dutenek gai-

nerakoek baino mendekotasun ttikiagoa dute erdararekiko. Eta erabilpen eremuak kontuan hartuz gero, etxean eta karrikan egiten dutenek erakusten dute gaitasun handiagoa hizkera ezberdinetan aritzera. Are gehiago, ikasketa-maila zein euskarazko kultur ekoizpenen jarraipena baino eraginkorragoak dira erabilpen eremu horiek.

Garbi gelditzen da, beraz, gazteen lagunarteko hizkera horren azkartzea premia handiko kontua dela: jakinik zein inportantea den gazteendako haien hizkera propioa izatea, helduengandik bereiziko dituen, eta ikusirik hizkuntzaren aldakortasuna batez ere gazteen hizkeran gertatzen dela, arazoari lehenbailehen heldu behar zaio, erabilpen esparru nagusiak (batez ere etxekoa eta kalekoa) eskura dituzan. Bertzenaz, hizkuntzak ez du etorkizunik izanen, benetako normalizazioak ez du nahikoa eskola, administrazioa eta hedabideak euskalduntzearekin; benetako normalizazioak behar duena da esparru informalean konkistatu, eta gazteak dira itsaso korapilatsu horretan nabigatu behar dutenak, eta euskara bizitzeko ari den zurrunbiloan ere onik ater behar dutenak. Gazteak bere afektibotasuna, adibidez, euskaraz modu natural eta erosoan emateko gauza denean, ziurtatuko da hizkuntzaren biziraupena. Bitartean, garai latzak heldu dira, baina bada oraino esperantzarako zirrikitia.

Akitzeko, bi gomendio eman nahiko nituzke (egonen da aukera balizko konponbideez aritzeko). Lehena, hizkera edo erregistro informalean aritu nahi duen orok (gazte zein helduagoak) nahietazkoa du hiketa edo hika ikastea, ezin baita irudikatu hizarik gabeko lagunarteko hizkera bat. Horretarako, nahikoa da Euskaltzaindiaren web orrira joatea eta erakunde horrek batuarako propio adostu zituen adizkiak ikasten hastea. Bide batez,

hikaren erabileraren ingurukoak ikasi nahi dituenak jo dezala IVA Pek argitaraturiko *Galdezka* liburura. Bigarrena, bertze liburu bat (badira gehiago, baina hasteko gomendagarrienetakoa iduri zait): Patxi Salaberri eta Juan Jose Zubirik eginiko bilketa zoragarria, *Biraoak: Nafarroan bilduak*, Pamiela argitaletxeak karrikaratu. Bertan euskara informalekin loturiko hainbertze hitz eta esamolde ageri dira, garbi uzten dutenak —zenbait santujalek zabaldu zutenaren kontra— euskaraz sekulako ahalmena duela iraintze lanetan.



hikaren erabileraren ingurukoak ikasi nahi dituenak jo dezala IVA Pek argitaraturiko *Galdezka* liburura.

Bigarrena, bertze liburu bat (badira gehiago, baina hasteko gomendagarrienetakoa iduri zait): Patxi Salaberri eta Juan Jose Zubirik eginiko bilketa zoragarria, *Biraoak: Nafarroan bilduak*, Pamiela argitaletxeak karrikaratu. Bertan euskara informalekin loturiko hainbertze hitz eta esamolde ageri dira, garbi uzten dutenak —zenbait santujalek zabaldu zutenaren kontra— euskaraz sekulako ahalmena duela iraintze lanetan.

Azken batean, euskaraz —eta edozein hizkuntzak, egia erran— maitaleak eta miresleak baino, hiztunak behar ditu (baita euskaraz iraintzen dakiten hiztunak ere), eta zoritxarrez gurean jende aunitz dugu euskara bihotzean baina erdara mihian darabilena.

... euskaraz maitaleak baino, hiztunak behar ditu



Jatetxea

**Volante**

Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak

Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695

Argazkiaz zerbait desberdina sortzen dugu

**Fotolizarra**

Karlos II Gaiztoa, 3 behea  
31200 Lizarra - Nafarroa  
Telf: 948 553 262

www.fotolizarra.net • info@fotolizarra.net

Foto-inkesta



Korrika

Heldu den egunetan KORRIKA 16 ospatuko da. Lizarrara martxoaren 31n iritsiko da. Datorren bitartean karrikara irten gara jendeari galdetuz:

- 1.- Orain arteko Korrikatan nola hartu duzu parte? Zerbait berezirik ba al duzu gogoan?
- 2.- Aurtengoan, KORRIKA 16an, parte harteko asmorik ba al duzu?
- 3.- KORRIKA 16aren leloa «Ongi etorri euskaraz bizi den herrira» da eta atzerritik etorriarik euskara ikasi dutenak omendu nahi dira, zer deritzozu?



Rafael Oilo

1.- Gogoan dut orain dela 27 urte «El Carrascal» izeneko mendatean egin nuen kilometroa. Orduan euskara ikasten ari nintzen eta gelakideekin egin nuen kilometro hura. Urte gehiengatik Ikastolako haurrekin egin ohi dut korrika, bai korrika txikia bai handia.

2.- Bai, urtero bezala, hobeto esanda bi urtez behin. Aurten ere parte hartuko dut.

3.- Oso ongi aukeratu dute, hor baitago euskararen etorkizuna neurri handi batean, gure gizartearen gero eta kanpotar gehiago dagoelako.



M. Carmen Rekondo

1.- Gogoan dut alabentzat petoak egiten eta gero haiek ikustera nola joaten nintzen. Batzuetan lanetik irten eta korrikara atera ere bai.

2.- Aurten ere lanean ez banago aterako naiz ikustera.

3.- Kanpotarrek euskara ikastea asko gustatzen zait, kanpotik etorri eta esfortzu hori egitea

asko baloratzen dut, ez baita erraza.



Antton Los Huertos

1.- Bartzelonan bizi nintzelarik, Bartzelonako Nafarren Etxean ikasi nuen euskara eta gero autodidakta moduan jarraitu nuen. Orain dela 16 urte, hantxe egin nuen korrika.

2.- Bai, noski. Parte hartuko dut. Lehenbiziko aldiz Lizarran nagoelarik, orain arte Bartzelonan egon bainaiz.

3.- Oso ongi iruditzen zait. Nire kasua antzekoa baina alderantziz izan zen, Euskal Herritik atera nintzen eta kanpoan, Bartzelonan, ikasi nuen.



Miren Arretxe

1.- Ikastolaren kilometroan parte hartu izan dut beti, bai korrika txikian bai handian. Ez dakit zenbat aldiz, hiru edo lau aldiz uste dut.

2.- Bai, zalantzarik gabe, nire gelakoekin.


3.- Ongi iruditzen zait. Nire ustez kanpotik etortzen direnek ere ikasi behar dute.



denborapasak

Gurutzegramak

Korrika



Ezker eskuin

3. Aizu entzun Lizarra ...
5. Aurten zenbatgarrena?
8. Korrikan erosten dena
9. Euskal Herrian ...

Goitik-behera

1. Korrikan eskuan eramaten dena
2. Aurtengo korrikaren leloa
4. Korrika antolatzen duen erakundea
6. Hemen gaude euskararen ...
7. Ika ika ika hemen ... korrika

Euskalglofoa

Korrikan eta alfonbratan



ESTELLA PASTELERIA GOXOTEGIA LIZARRARA  
NAPAL MONTOYA  
**Angela**  
Plaza Fueros 2 - Tel 948 55 07 95

**KATXETAS**  
*taberna*

Estudio de Gramática, 2  
31200 Lizarra- Nafarroa  
Tel. 948 550 010

**Udalbide.NET**  
www.udalbide.net

ALBISTEAK ETA INFORMAZIOA GUZTIA ESKURA  
Bartu zure udalberria eta ilus ezazu zure UDALEKARRIAREN informazio guztia eguneratuz.  
Ezagutu ezazu Euskal Herria, EUSKAL HERRIA SAKONEAN atalaren bitartez. Hor auzituko dituzu Lurraldea, Biztanleria, Ekonomia eta gizartea, Euskara eta hezkuntza, Udalerriak eta Euskal Diaspoaren inguruko gaurkotutako datu guztiak.  
Eta harpidetu zaitzez BULETIN ASTEKARI ELEKTRONIKOra. Astero jasoko dituzu azken-azkeneko berriak.

www.udalbide.net  
www.udalbiltza.eu

ZUREKIN

markoen ipinketa  
**zurriola**  
enmarcaciones

Kale Nagusia, 80  
31200 Lizarra-Estella  
Tel.: 948 55 22 86 - 948 55 29 94